



Helduak  
Zabaltzen



GIZARTE ZENTROAK  
ERALDATZEKO TRESNAK

# PERTSONAK

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA  
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,  
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO





Gizarte zentroak  
eraldatzeko tresnak:

**PERTSONAK**

## NONDIK DATOR GIDA HAU?

**Eusko Jaurlaritzak eta Euskofederpenek** bultzatutako ekimena da **Helduak Zabaltzen**, eta **adinekoen gizarte zentroen** eredu eraldatu eta egokitzeko eta digitalizazioan laguntzeko sortu da. Haren helburu nagusia da zentroak egungo eta etorkizuneko adinekoen beharretara egokitzea.

Proiektuak **esperientzia pilotuak** jarri ditu abian **hiri inguruneetan (Eibarren eta Erandion) eta landa inguruneetan (Kanpezun eta Arratzun)**, Euskadin adinekoen gizarte zentroen eredu berriak martxan jartzea helburu duen partaidetza prozesua aktibatuzko.

Tresna hau bigarren ezagutza multzoan sartzen da; horien bidez, proiektuan zehar eskuratutako ezagutza partekatu nahi da. Bigarren multzo hau **BAZKIDEEI** buruzkoa da, eta zentroan bizi duten esperientziaren inguruko hausnarketa sustatzea du helburu.

Gida hau egin ahal izateko, lankidetzan aritu dira **Helduak Zabaltzen** ekimenaren laguntza jasotzen duten **gizarte zentroak, proiektuaren eraldaketa mahaia, BIZAN (Gasteizko adinekoentzako gizarte zentroen sarea) eta taldeari lagundu dioten eta proiektuan parte hartu duten pertsona guztiak.**

## GIZARTE ZENTROAK ERALDATZEKO TRESNAK: PERTSONAK

Egileak: Nerea Almazán eta Elisa Berrios

Lantaldea: Ainara Tomasena eta Laura Fernández

Ilustrazioak: Goretta TaPuntu

Maketazioa: Matia Comunicación

info@matiafundazioa.eus | <https://helduakzabaltzen.eus/>

© Donostia, 2024  
Helduak Zabaltzen



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

ONGIZATE, GAZTERIA ETA  
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,  
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Material hau Matia Institutuak landu du, Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren Helduak Zabaltzen proiektuaren esparruan.

# AURKIBIDEA

6

## SARRERA

10

## HARRERA PROZESUA

- Zer da harrera prozesua?
- Zergatik da hain garrantzitsua?
- Nola hobetu daiteke prozesua?
- Nola egin dute beste zentro batzuek?

10

## JARDUERAK

- Zer ekarpen egiten dute jarduerak?
- Nola hartzen da parte jardueretan?
- Nola antolatzen dira jarduerak?

24

## BARNE KOMUNIKAZIOA

- Zer da barne komunikazioa?
- Zergatik da garrantzitsua zentroetan?
- Nola lor daiteke barne komunikazio egokia?

# Sarrera

Tresna hau Bazkideak izeneko multzoaren parte da. Bertan, adinekoen gizarte zentroetako protagonista nagusiekin zuzenean lotutako gaiak jorratuko dira. Protagonistak aipatzen ditugunean, gizarte zentroetako bizitzan era batera edo bestera parte hartzen duten pertsona guztiez ari gara; beraz, eremu honetako zutabe nagusiaz.

Pertsona horiek zentroko partaide gisa duten zuzeneko esperientzia alderdirik garrantzitsuenetakoa da zentroaren funtzionamendua baloratzeko. Izan ere, pertsonak zentroan parte hartzean duten esperientzia termometro egokia izan liteke zentrotik egiten eta proposatzen dena zentzuzkoa den neurtzeko, edo nolabait eraldatu beharko litzatekeen ikusteko.

Zentro bakoitzak erabaki bezain zabala edo handiguratsua izan daiteke gizarte zentroen eraldaketa. Beraz, hainbat alderdi har ditzake kontuan, eta horietako batzuk lotura zuzena izan dezakete pertsonen esperientziarekin.

Helduak Zabaltzen ekimenari esker, pertsonen bizipenetan eraginik handiena duten alderdietako batzuk identifikatu ahal izan dira, horien inguruko gogoetak eta eraldatzeko gakoak eskaintzeaz gain.

Hauek dira eralda daitezkeen alderdiak, pertsonen bizipenak eraldatzeko gakoak:

- Harrera prozesua
- Jarduerak
- Barne komunikazioa

Hiru alderdiok lagungarriak izan daitezke, batetik, egungo bazkideen esperientzia eraldatzeko eta, bestetik, beste profil batzuetako pertsonak zentrorera erakartzeko.



# **Harrera prozesua**

# Zer da harrera prozesua?

Pertsona bat gizarte zentroarekin harremanetan jartzen denetik izena ematen duen arte gertatzen den guztia har daiteke harrera prozesutzat. Iraupen zehatzik ez duen aldi horretan, informazioa edo datuak trukatzeko dira, funtsean: bazkide izateko eskatzen den dokumentazioa ematen du pertsonak eta bertan egiten denari buruzko informazioa eskaintzen du zentroak.

Prozesu hori oso modu informalean gauzatu izan da, gehienetan zentroko batzordeko kideren baten eskutik, elkartearen duten zentroen kasuan. Hortaz, oro har pertsona bat arduratu ohi da oinarrizko datuak (NANa, kontu zenbakia, telefonoa...) jaso eta zalantzak argitzeaz. Topaketa horren formaltasun maila hainbat faktoreren arabera izaten da; baina, funtsean, informazioa trukatzeko eta izapideak betetzeko tarte labur bat partekatzean datza.



# Zergatik da hain garrantzitsua?

Komenigarria da lehenengo topaketa horren garrantzia kontuan hartzea; izan ere, harreman baten hasiera da, kasu honetan pertsonaren eta zentroaren arteko hartu-emanarena. Beraz, aukera aproposa da lotura egokia ezartzeko eta bazkide berriaren inplikazioa eta partaidetza sustatuko duten beste harreman modu batzuk bideratzeko.



# Ariketak

## 1. ariketa.- Nolakoa da gure harrera prozesua?

Aurrera jarraitu baino lehen, ariketa labur bat egitea proposatuko dugu, zentroko harrera prozesuaren inguruan hausnartzeko:

### EGUNGO HARRERA PROZESUAREN EZAUGARRIAK

Prozesuaren ezaugarri jakin batzuei erreparatuko diegu. Gaur egun prozesua nola egiten den aztertzea da kontua. Horretarako, ezaugarri jakin batzuk zehaztuko ditugu, jarraian egingo ditugun galderen bidez:

#### NORK?

- Nork egiten du harrera?

- Nola aukeratzen da pertsona hori?

#### NOLA ETA NON?

- Nola egiten da hitzordua?

- Non egiten da topaketa?

- Zenbat irauten du?

#### ZER?

- Zer informazio jasotzen da?

- Non jasotzen da?

- Zer informazio ematen zaio bazkide berriari?

# Ariketak

## 2. ariketa.- Zer balorazio egiten dugu prozesuaz?

Hasierako gogoeta egin eta harrera prozesuaren ezaugarri batzuk zehaztu ondoren, prozesu horren balorazioa egitea proposatzen dugu.

### EGUNGO HARRERA PROZESUAREN BALORAZIOA

Gaur egungo harrera prozesuaren hasierako balorazioa egiteko, prozesu horren helburuak hartuko ditugu abiapuntutzat. Beraz, geure buruari galdetuko diogu:

### ZER HELBURU IZAN BEHAR D(IT)U HARRERA PROZESUAK? ZERTARAKO EGITEN DUGU?



#### Hona hemen adibide batzuk:

- Zentroko bazkide izateko bete beharrekoen berri ematea. Bertan egiten diren jardueren berri ematea.
- Zentroan parte hartzeko eta antolatzeko moduen berri ematea.
- Pertsonari buruzko informazioa jasotzea, bazkide izateko egin beharreko izapideak egiteko.
- Pertsonaren interesak eta beharrak ezagutzea, berarentzat egokiak izan daitezkeen jarduerak gomendatzeko.
- Zentroan baliagarriak izan daitezkeen pertsonaren talentuen berri jasotzea.
- Pertsonaren integrazioa sustatzea.
- Hainbat belaunalditako pertsonen sarbidea ahalbidetzea.
- Zentroa ezagutaraztea.
- Eta abar.

# Ariketak

## 2. ariketa.- Zer balorazio egiten dugu prozesuaz?

---


Harrera prozesuaren helburuak zehaztu ondoren, galdera honi erantzuten saia gaitzke:

### **GAUR EGUN ZENBATERAINO BETETZEN DIRA HELBURUOK?**

Hausnarketa hori egiteko, ariketa hau proposatzen dugu: 1etik 4rako eskala erabiliz baloratzea aurreko ariketan aztertutako ezaugarri bakoitza zer neurritan datorren bat helburuarekin; 1 zenbakiak esan gurako du ezaugarri horrek ez duela laguntzen helburua betetzen, eta 4 zenbakiak, oso lagungarria dela.

Harrera prozesuak helburu bat baino gehiago badu, horietako bakoitza baloratu beharko da.

Azterketa hori baliagarria izango da ikusteko zer alderdiri erreparatu behar zaion, batez ere, harrera prozesua eraldatzeko orduan, planteatutako helburuak bete daitezten.



	1	2	3	4
Zenbateraino da lagungarria harrera prozesua, <b>bete nahi ditugun helburuak</b> lortzeko?				
1. helburua				
2. helburua				
3. helburua				
Eta abar.				
Harrera egiten du(t)en pertson(a/e)k zenbateraino ezagutzen ditu(uzte) helburuok, prozesua ahalik eta egokiena izan dadin?				
Topaketa egiten den <b>gunea</b> zenbateraino da lagungarria helburuak betetzeko?				
Topaketaren <b>iraupena</b> zenbateraino da lagungarria helburuak betetzeko?				
<b>Jasotzen den informazioa</b> zenbateraino da lagungarria helburuak betetzeko?				
Bazkide berriari <b>ematen zaion informazioa</b> zenbateraino da lagungarria helburuak betetzeko?				
<b>Informazioa jasotzeko tresna</b> (orria, txantiloia, erregistro informatikoa...) zenbateraino da lagungarria helburuak betetzeko?				

1. - Ez da batere lagungarria.

2. - Ez da lagungarria.

3. - Lagungarria da.

4. - Erabat lagungarria da.

# Nola hobetu daiteke prozesua?

Lehenik eta behin, topaketa egiteko unearekin lotutako eragile batzuk lagungarriak izan daitezke harremana egoki has dadin.

Zentro motaren, harrera egiten duen pertsonaren, iritsi berriaren eta abarren arabera, formaltasun maila ez da beti bera izango. Nolanahi ere, badira lehen harremanaren une hori aprobetxatzeko eta giro eroso sortzeko orokorrean lagungarriak izan daitezkeen kontu batzuk; adibidez:

- Bi aldeek hitzordua garaiz lotzea.
- Topaketaren ordua eta leku zehatza ezagutaraztea.
- Topaketaren gutxi gorabeherako iraupena adostu edo aipatzea.
- Harrera egiteko funtsezko pertsonak zehaztea (beste bazkide bat, zuzendaritza batzordeko kide bat, dinamizazioko profesionala...), diseinatu nahi den topaketa motaren arabera.

Bigarrenik, horrelako topaketetan egiten den informazio trukea izaten da, hein handi batean, lotura egokia ezartzeko gakoa. Batetik, gune egokia da, interesatzen zaizkion gaiak, zaletasunak edo zentrora etortzeko arrazoiak adieraz ditzan bazkide berriak.



Era berean, harrera egiten duen zentroko kideak etorri berriaren trebetasunei eta ezagutzei buruzko informazioa ere jaso dezake, gainerako datuekin batera. Informazio hori guztia funtsezkoa da, zentroa bertaratzen diren pertsonen errealitatera moldatzeko; hau da, haien gustu eta beharrei erantzuteko eta pertsona bakoitzak hartu nahi dituen konpromisoen arabera partaidetza moduak eskaintzeko.

Informazio bilketa hori bereziki interesgarria da, jarduera eta zerbitzu jakin batzuk aukeratu eta garatzeko; izan ere, bazkideen interesen, zaletasunen, trebetasunen eta abarren berri jaso ondoren errazagoa da eskaintza egokia proposatzea.

Hortaz, kontua da, bazkide berriari zentroaren funtzionamenduari buruzko informazio garrantzitsua emateko ez ezik, pertsonaren oinarrizko datuetatik haratago doan informazioa jasotzeko ere aprobetxatzea topaketa, eta, horrela, bestelako lotura bat sortzea, eta parte hartzeko eta harremanetarako beste modu batzuk sustatzea, elkarrekikotasunean oinarritutako harreman bat hasteko. Ildo horretan, hauek dira topaketaren gakoak, laburbilduta:

- Oinarrizko datuez gain bestelako informazioa ere jasotzea: interesak, zaletasunak, trebetasunak, ezagutzak...
- Zentroa joateko dituen arrazoiak galdetzea.
- Zertan parte hartu nahiko lukeen eta zer konpromiso hartu nahiko lituzkeen jakitea.
- Zentroari buruzko informazioa ematea, alderdi hauen ingurukoa barne: zerbitzuak eta jarduerak, zentroaren helburua, ordainketak eta kostuak, zentroan parte hartzeko moduak, eragileekiko lankidetzak...



# Nola egin dute beste zentro batzuek?

Eibar udalerrak Helduak Zabaltzen proiektuaren hiri hurbilketaren saiakera pilotuan hartu zuen parte. Ekimen horretan, herriko zentroetako harrera prozesuaren aldaketa landu zuten, egitasmo horretarako sortutako talde eragilearen bidez. Lan hori egiteko, BIZANen laguntza eta ezagutza izan zuten. Horregatik, Eibarko zentroetako harrera prozesuaren proposamenaren zati bat [Gasteizko BIZAN zentroen sarean](#) egiten duten harreran dago oinarrituta.

Kasu horretan, harrera prozesua honela egitea erabaki zuten:

## Hitzordua adostea

Lehenik eta behin, topaketari nolabaiteko formaltasun maila ematea erabaki zuten, biltzeko lekua eta ordua aldeaz aurretik adostuta, besterik gabe. Harrera gizarte zentroan bertan egingo zela erabaki zuten.

## Harrera egiteko pertsona bat aukeratzea

Topaketa horretan elkarrizketa sortuko dela kontuan hartuta, eta, aipatu denez, etorri berriaren eta zentroaren artean lotura sortzeko aukera egongo denez, garrantzitsutzat jo zuten zentroko pertsona egokia aukeratzea harrera egiteko. Elkartzeko unean giro atsegina ahalbidetu dezakeen norbait izan behar du, etorri berria eroso sentiaraziko duena partekatu beharreko informazioa ematean eta jasotzean.

## Harrerako fitxa

Informazio pertsonal guztia biltzeko, ohikoa —NANA, telefonoa, kontu-zenbakia eta abar— eta gainerakoa, harrerako fitxa diseinatu zen (ikusi *Harrerako fitxa*).

Elkarrizketa formatua du, eta lehen topaketan egin beharreko galderak jasotzen ditu. Dena den, galderak ez dira nahitaez fitxan azaltzen diren ordenan egin behar; gida bat besterik ez da. Hain zuzen, kasu bakoitzean egokitzen jotzen den ordenan egitea proposatu zuten. Gainera, etorri berriarentzat hotzegia izan ez dadin elkarrizketa, proposatu zuten erantzunak bileraren ostean jasotzea idatziz, ez elkarrizketan zehar.

Azken galderaren bidez, etorri den pertsonak zentroan nola lagundu nahi duen jasotzea da asmoa; hau da, nola parte hartu nahi duen eta zertan konprometitzeko prest dagoen. Galdera hori funtsezkoa da parte hartzeko dauden aukera guztiak jasotzeko eta sustatzeko, eta, gainera, pertsona horrek onar dezakeen konpromiso maila ezagutzeko. Nolanahi ere, proposamenaren arabera, galdera hori beste uneren batean egin daiteke, eta ez lehenengo bileran ezinbestean. Adibidez, etorri den pertsonarentzat inbaditzailea edo zuzenegia izan daitekeela baloratzen bada, edo zentroan egiten dena ezagutzen ez duelako oraindik ez badaki zertan lagundu nahi duen, galdera hori aurrerago egitea erabaki daiteke (ikusi: Harrerako fitxa tresna).

### **Eskuliburua**

Azkenik, Eibarko gizarte zentroen eskuliburua egin zuten, bi helburu nagusirekin: batetik, udalerriko gizarte zentro bakoitzari buruzko informazio garrantzitsu guztia biltzea eta, bestetik, zentroen eredu berria eta horietan parte hartzeko askotariko moduak azaltzea.

Lehenik eta behin, eskuliburuan datu hauek jasotzen dira, besteak beste, zentro bakoitzari buruz:

- Orduategia
- Helbidea
- Harremanetarako datuak
- Zentro bakoitzeko zerbitzuak eta horien ordutegiak

Bigarrenik, zentro ereduari dagokionez, eredu berriaren ezaugarriak, funtzionamendua eta egitura zehazten ditu eskuliburuak. Era berean, gizarte zentroetan parte hartu edo kolaboratzeko moduak azaltzen ditu (ikusi: Harrerako eskuliburua tresna).

## **Ariketak**

### **3. ariketa.- Hobetuko dugu gure harrera prozesua?**


Harrera prozesuaren potentzialtasuna, prozesua hobetzeko gakoak eta Eibarko adibidea irakurri ondoren, berriro proposatuko dugu zentro bakoitzeko prozesuari buruz hausnartzea.

Esparru bakoitzean (nork, nola eta non, eta zer) harrera prozesua hobetzeko aldatu beharko liratekeen alderdi batzuk proposatzea da pauso honen helburua, eta, horrela, bazkide berriek zentroan parte hartzea eta zentroarekiko lotura sustatzea.

## HARRERA PROZESUA ERALDATZEA

Harrera prozesua hobetu nahiko bagenu, zer alderdi aldatuko genuke zehazki? Zer aldatuko genuke «nork», «nola eta non» eta «zer» esparruetan? Nola aldatuko genuke? Zer proposamen egingo genuke zehazki?

Ariketan, taula bete behar da, esparru bakoitzeko (nork, nola eta non, eta zer) galderei erantzunez, jarraian azaltzen den ereduan ikusten denez:



	Zer aldatuko genuke?	Nola aldatuko genuke? Zer proposamen egingo genuke zehazki?
<b>Nork</b>	<i>Aldi bakoitzean pertsona batek egiten du harrera</i>	<i>Pertsona bat edo bi arduratzea harrera egiteaz. Hala, bazkide berriekin egindako bilera guztietan informazio bera jasoko litzakete eta dena modu berean, gainera. Pertsona horiek zeregin argia izango lukete, harrerarako ezarritako helburuen arabera.</i>
<b>Nola eta non</b>		
<b>Zer</b>		



# Jarduerak

Gizarte zentroetako jarduerak eta bertan eskaintzen diren zerbitzuetako asko gune horietan gehien estimatzen diren ezaugarriak dira. Zentrozen bereizgarritzat hartzen dira, bai zentro barruan eta bai kanpoan. Zentrozen alderdirik erakargarrienetakoak izaten dira; jende askok interesgarritzat jotzen ditu eta horregatik bertaratzen dira.

Dena den, jarduerak zentrozen kanpoko irudiarekin oso lotuta daudenez, bertaratzen diren pertsonen profila eta parte hartzeko modua baldintza ditzakete.

Beraz, jardueren potentzialtasuna eta zentroekin duten lotura kontuan hartuta, horien inguruan hausnartu beharra dago.



# Ariketak

## 4. ariketa.- Nolakoak dira gure zentroko jarduerak?

Jarduerei eta zentroarentzat duten garrantziari buruzko azalpenarekin jarraitu aurretik, jarduera horiek nolakoak diren aztertzeko lehen hausnarketa proposatzen dugu.

### JARDUEREN EZAUGARRIAK

Ariketa honetan, zentroak eskaintzen dituen jardueren inguruan gogoeta egingo da, taldean, galdera hauei erantzuteko:

- Zer jarduera egiten dira zentroan? Egin zerrenda.
- Zer helburu du bakoitzak?
- Nola aukeratzen eta erabakitzen dira bertan egiten diren jarduerak?
- Zer profil dute horietako bakoitzean parte hartzen duten pertsonak?
- Egiteaz haratago zer modutan har daiteke parte jarduera horietan? Adibidez: bazkideek hartzen dute parte jardueren diseinuan?
- Nola antolatzen dira?
- Nola ezagutarazten dira?

Hausnarketa hori eta galderen erantzunak lagungarriak dira zentroetan egiten diren jardueren errealitatea sakontasunez baloratzeko. Era berean, komenigarria da zentroetan proposatzen diren jardueren egokitasunaren inguruan gogoeta egitea —galdera horien eta beste batzuen bidez—, batez ere kideen aniztasunari erreparatuta. Hau da, pertsonen aniztasuna kontuan hartuta, zentroetako jarduerak erantzuten diete profil guztien errealitateari, gustuei edo intereseei?

Jarduera guztiak ez dira izango zentroko pertsona guztien gustukoak, jakina; baina hausnarketa interesgarria da, jarduera batzuk berriro egin ala ez aztertzeko.

Zentroetan egiten diren jarduerarik ezagunenetako batzuk duela urte asko hasi ziren antolatzen ; argi dago ondo funtzionatzen duenari eustea komeni dela. Halere, geure buruari galdetu behar diogu jarduera horiek inertziak edo interesagatik egiten ditugun, batez ere adineko pertsonen belaunaldi berriak kontuan hartzen baditugu.

Izan ere, belaunaldi berriek batzuetan ez dituzte begi onez ikusten iraganetik datozen jarduerak, ez dituzte egokitzen jotzen.

Puntu horretan, funtsezkoa izan daiteke:

- Batetik, jarduerak aldizka baloratzea, hobetu daitezkeen ikusteko. Ildo horretan, jardueren zenbait alderdi balora daitezke: zenbat lagunek hartzen duten parte, nola hartzen duten parte, gogobetetze maila... Horretarako, jardueren balorazioen erregistroa erabil daiteke. Erregistroaren formatua askotarikoa izan daiteke (ikus Jardueren ebaluazio fitxa).
- Bestetik, beste zentro batzuetako esperientziak ezagutzea, inspiratzeko eta ezagutza partekatzeko. Beste zentro eta pertsona batzuek egiten dutenaren berri izatea aberasgarria da proposamen berriak egiteko. Horixe da, hain zuzen, Helduak Zabaltzen ekimenak abian jarritako webgunearen (<https://helduakzabaltzen.eus/>) helburuetako bat. Bertan, beste zentro batzuetako esperientziak eta ezaugarriak kontsulta daitezke.

# Zer ekarpen egiten dute jarduerak?

Aurretik aipatu denez, jarduerak lotura estua dute zentroak kanpora begira duen irudiarekin. Hortaz, aztertu beharrekoa da proposatutako jarduerak zenbateraino datozen bat zentroaren asmoarekin.

**Zein da zentroaren helburu edo asmoa? (ikusi Asmoa gida).**

**Proposatzen diren jarduerak bat al datoz helburu horrekin? Jarduerak lagungarriak al dira zentroaren helburuak lortzeko?**

Bazkide asko batzen dira jardueretara, eta jende berria erakartzeko arrazoietako bat dira. Gainera, ahalmen handia dute zentroaren dinamikak aldatzeko eta gizarte zentroak helburutzat eta funtzioztat duen horretara hurbiltzeko.

Esaterako, zentroaren helburu edo funtzioetako bat komunitatera zabaltzearekin edo harekiko harremanarekin lotuta badago, jarduerak horretarako bidea izan daitezke. Hau da, jarduerak zentrotik kanpora ateratzea, udalerriko beste leku batzuetan egitea edo beste eragile batzuekin batera antolatzea baliagarriak dira komunitatearekiko harremanak sendotzeko.

Belaunaldiartekotasuna da beste adibide bat. Zentro askok belaunaldien arteko harremanak sustatzen dituzte, eta horren aldeko apustua da haien helburuetako bat. Kasu horretan, helburu zehatz hori duten jarduerak benetan baliagarriak dira, harreman horiek sustatzeko bidea izan baitaitezke.

Bestalde, parte hartzea sustatzeko helburuarekin proposatzen dira jarduerak asko. Hori dela eta, geure buruari galdetu behar diogu antolatzen diren jarduerak eta horiek kudeatzeko modua lagungarriak ote diren parte hartzea sustatzeko, jarduerak pentsatu, diseinatu eta abian jartzeko orduan.

# Nola har daiteke parte jardueretan?

Zentroetara doazen pertsonen aniztasuna kontuan hartuta, argi dago parte hartzeko modu asko daudela. Nolanahi ere, proposatzen diren jarduerak eta horiek antolatzeko era lagungarriak dira parte hartzeko modu bat baino gehiago ahalbidetzeko?

Gai hauen inguruan gogoeta egitera animatzen zaituztegu:

## Zer modutan har daiteke parte zentroko jardueretan? Parte hartzeko era asko dago?

Parte hartzearen ohiko ikuspegitik begiratuta, jarduerak kudeatzea eta horietara joatea dira parte hartzeko modu bakarrak. Hau da, «ekoiztea edo kontsumitzea».

Hala ere, ikuspegi zabalago batetik begiratuta, badago parte hartzeko modu gehiago. Alabaina, horretarako, berrikusi egin behar da jarduerak nola planteatzen

diren, nola antolatzen diren, nola hedatzen diren, nola egiten zaien jarraipena, eta bertaratzen diren pertsonen nola parte hartzen duten. Bestela esanda, jarduerak ekoizti edo kontsumitze hutsetik ateratzen bagara, tarteko beste partaidetza maila batzuk azter daitezke, zentroko bizimodua eta pertsona bakoitzak bertan bizi duen esperientzia aberastu dezaketenak.

Pertsona bakoitzak bere interesen eta zentroan hartutako konpromisoen arabera dituen parte hartzeko moduak ulertu eta baliozkotuta, errazagoa da jarduerak zentroko kideen askotariko egoeretara egokitzea.

Gainera, bazkideek jardueretan parte hartzea lehen aipatu dugun ekarpenaren parte da. Ekarpena norabide desberdinetan egiten da; hau da, jarduerak zentroko bizimodua aberasten dute, eta, aldi berean, parte hartzearen bidez pertsonen ekarpena egiten diote zentroari. Azken finean, zentroko bizitzan nola edo hala parte hartzea bazkideek egindako ekarpena da, eta maila indibidualetik haratago doa; izan ere, pertsonen ekarpen horrek on egiten die beste batzuei (ikus 3. gida: Partaidetza eta gobernantza).

# Nola antolatzen dira jarduerak?

Jardueren antolaketa oso lotuta dago parte hartzearekin, jarduera bat antolatzea bertan parte hartzea ere badelako, inplikazio maila edozein dela ere.

Elkarteko batzordea duten gizarte zentro askotan, batzorde hori arduratzen da, hain zuzen, jarduerak antolatzeaz. Beraz, gainerako bazkideak jardueretara joaten dira, besterik gabe. Baina zeregin horrek, sarritan, gehiegizko lan karga ekartzen dizkie batzordeko kideei, konpromiso maila oso handia eskatzen baitu. Horixe izaten da, hain zuzen, zuzendaritza batzordeen errelebo faltaren arrazoietakoa bat; pertsonak ez dute maila horretako konpromisorik hartu nahi, askotariko arrazoiak tarteko.

Horregatik, interesgarria da jarduerak antolatzeko modua berrikustea; batetik, lan karga handiegia duten pertsonen zama hori arintzeko, eta, bestetik, pertsona gehiagoren inplikazioa ekarriko duten parte hartzeko beste era batzuk sustatzeko (ikus **Jardueren diseinuaren fitxa**).

Beste alde batetik, funtsezkoa da kontuan izatea jardueren antolaketa ez dela nahitaez zentroko pertsonen (batzordekideen edo beste bazkide batzuen) esku bakarrik egon behar, kanpokoek ere har dezakete parte horretan. Hala, oso garrantzitsuak dira komunitateko bestelako eragileak (elkartekak, boluntarioak, saltokiak...).

Azkenik, jarduerak antolatu baino lehen, komenigarria da hautaketa egitea, zeintzuk gauzatuko diren zehaztea. Puntu honetan, bi ideia aipatuko ditugu:

1. Lehenago ere egin den jardueraren kasuan, aurretik nola joan den baloratzea komeni da, zerbait aldatu behar ote den erabakitzeko.
2. Jarduera berriak diseinatzeko, bazkideen gustuetan eta lehentasunetan oinarritu behar da. Informazio hori harrera prozesuan bil daiteke; dena den, komeni da aldizka ekintzak egitea, jendearen interesen berri jasotzeko.

# Ariketak

## 5. ariketa.- Nola baloratzen ditugure zentroko jarduerak?

Jarduerak zentroetan oso garrantzitsuak direla erakusten duten arrazoi nagusiak azaldu ondoren, balorazioa egitea proposatzen dugu, alderdi zehatz batzuk eraldatzeko abiapuntutzat hartu ahal izateko.

### JARDUEREN GAINEKO BALORAZIOA

Ariketa honetan, zentroko jarduerak ezaugarri batzuk zenbateraino betetzen dituzten baloratuko da taldean, 1etik 5era bitarteko puntuak emanaz.



- 1 – Batere ez. Jarduerak ez dute ezaugarri hori betetzen.
- 5 – Hein handi batean. Jarduerak ezin hobeto betetzen dute ezaugarri hori.

Galdera horiei emandako erantzunak lagungarriak izango dira alda litezkeen egungo jardueren ezaugarriak zehazteko, eta, hala, zentroa guk nahi dugun eredura bideratu eta eraldatzeko.


### Zentroko jarduerak...

...pertsonek interesen arabera aukeratzen dira.	1	2	3	4	5
...egoki ezagutarazten dira, interesa duten guztiak jasotzeko moduan.	1	2	3	4	5
...parte hartzeko hainbat modu ahalbidetzen dituzte.	1	2	3	4	5
...hainbat profiletako pertsonen parte hartzea ahalbidetzen dute.	1	2	3	4	5
...berrikusi egiten dira, funtzionatzen duten eta bazkideen gustukoak diren baloratzeko.	1	2	3	4	5
...hainbat gunetan egiten dira (ez bakarrik zentroan).	1	2	3	4	5
...komunitatearekiko harremanak ahalbidetzen dituzte.	1	2	3	4	5
...hainbat lagunek antolatu eta pentsatzen dituzte (batzordeko kide ez direnek ere).	1	2	3	4	5

# Ariketak

## 6. ariketa.- Hobetuko ditugu jarduerak?

Azkenik, zentroko jarduerak nolakoak diren ikusi eta balorazioa egin ondoren, eraldatzearen inguruan hausnartzea proposatzen dugu.



JARDUERAK ERALDATZEA

Ariketa honetan, taula beteko dugu, aldatu nahi diren jardueren alderdi zehatzak aipatuz. Horretarako, ezkerreko zutabearen faktore batzuk proposatzen dira, aldatu nahi diren alderdiak identifikatzen laguntzeko. Gainera, eremu batzuk hutsik daude, aldatu nahi diren beste ezaugarri batzuk idazteko, adierazitako faktoreekin loturarik ez duten ezaugarriak egon daitezkeelako.

Jarraian, adibide bat erakutsiko dugu:

	Zer aldatuko genuke?	Nola aldatuko genuke? Zer proposamen egingo genuke zehazki?
Komunikazioa eta zabalkundea	Jardueren berri emateko modua. Jarduerak ezagutarazteko egungo moduarekin informazioa ez da iristen nahi genukeen jende guztiarengana.	Proposamena: bizpahiru lagun arduratu daitezke zentroaren sare sozialez, jarduerak bertan argitaratu eta ezagutarazteko.

	Zer aldatuko genuke?	Nola aldatuko genuke? Zer proposamen egingo genuke zehazki?
<b>Komunikazioa eta zabalkundea</b> (Nola ematen zaien jardueren berri interesa duten pertsoneri, zentro barrukoei zein kanpokoei)		
<b>Pertsonen parte hartzea</b> (Pertsonen partaidetza maila, parte hartzeko modu asko dagoen...)		
<b>Jardueren antolaketa</b> (Jarduerak nola jartzen diren martxan: arduradunen kopurua, horietako bakoitzaren zereginak eta funtzioak, inplikaturik dauden beste eragile batzuekin batera antolatzen diren...)		
<b>Jardueraren gaineko balorazioa</b> (Jarduerak funtzionatu duten edo aldatu behar diren ebaluatzeko modua, pertsonak jarduerari buruz egiten duten balorazioa...)		
<b>Komunitatearekiko harremana</b> (Jarduerak zer neurritan sustatu dituzten zentroa eta bertako pertsonak komunitateko beste eragile batzuekin harremanetan jartzea)		

A large, irregular, purple-toned marbled graphic with intricate, vein-like patterns, centered on the page. The colors range from light lavender to deep purple, creating a textured, organic appearance.

# **Barne komunikazioa**

# Zer da barne komunikazioa?

Zentroko bizitzan parte hartzen duten pertsonen bideratutako komunikazioari barne komunikazioa esaten zaio. Pertsona horiek profesionalak, bazkideak eta noizean behin parte hartzen duten lagunak izan daitezke, besteak beste.

Zentro bateko barne komunikazioa aipatzean, taulako iragarkiak eta posta elektronikoz edo WhatsApeez bidalitako oharra bururatzen zaizkigu lehenbizi: jardueren egutegia, bulegoko ordutegia adierazten duten kartelak, jardura berriak edo zentroko bizitzarako garrantzitsua den informazioa.

Beraz, informatzeko ekintzen batuketak da barne komunikazioa, eta, ekintzok, normalean, bi partaide mota izaten dituzte: informazioaren igorlea eta hartzailea; hau da, batzordeko kideak eta bazkideak, hurrenez hurren.


Baina barne komunikazioa hori baino askoz gehiago da, eta barneko publikoaren kezkei eta informazio zein motibazio beharrei erantzutea du helburu (Del Pozo Lite, 1997; Xifra, 2017).

Horretarako, nahitaezkoa da aldean artean informazioa ematea, entzutea eta hitz egitea. Zer ekintza datozkigu gogora zentroko aldean arteko elkarrizketa eta entzutea aipatzen ditugunean? Kasu horretan, elkarrearen biltzarrak eta iradokizunen postontzia izango dira, seguruenik, erantzun nagusiak. Bi ekintzok garrantzitsuak dira helburuak lortzeko bidean aurrera egiteko, baina mugatuak ere badira.

**Adibidez, zentroko pertsona guztiek hartzen dute parte biltzarretan? Zer maiztasunekin egiten dira biltzarrak? Bilera horietan era guztietako gaiak aztertzen dira edo urtez urte errepikatzen den gai zerrendari heltzen zaio? Nola erantzuten zaio iradokizunen postontzian jasotakoari? Nola sustatzen dira ideia berriak, jardura berrien sorrera edo eragileekiko harremanak?**

Labur esanda, barne komunikazioa informatzea baino gehiago da, komunikatzea da. Bi kontzeptu horien arteko aldea argia da: informatzea alde bakarreko ekintza da, eta komunikatzea, berriz, bi aldeko prozesua, eta pertsonak elkarrekin harremanetan jartzea du xede, ekintza kolektiboa ahalbidetzeko (Villafañe, 1999; Xifra, 2017).

# Zergatik da garrantzitsua zentroetan?




Komunikazioa parte hartze ororen oinarria da. Zentroen autokudeaketa ereduaren alde egiteko eta adinekoen askotariko interesei eta premiei erantzuteko, pertsona horiek zentroan parte har dezaten lortu behar da, ardura berriak onar ditzaten eta erabakiak hartzen aktiboki parte har dezaten.

Ildo horretan, barne komunikazioak zeregin garrantzitsua du, baina normalean ez zaio balio hori aitortzen. Barne komunikazio egokia lortzea onuragarria da, eta identifikatu diren onuren artean hauek nabarmentzen dira:

- Zentroko kide izatearen sentipena eta pertsonen integrazioa areagotzen ditu.
- Zentroarekiko konfiantza eta konpromisoa handitzen ditu, eta hori lagungarria da ardurak dibertsifikatzeko.
- Zentroko giroa eta pertsonen arteko kohesioa hobetzen ditu.
- Zentroaren helburua lortzeko lan partekatua sustatzen du. Bazkideen eta/edo erabiltzaileen interesen eta premien berri izatea errazten du.
- Inguruneko adinekoen premiei eta interesei egokitutako jarduerak eta ekintzak sortzea bultzatzen du.
- Pertsonen arteko interakzioa eta elkarrizketa sustatzen ditu, eta, baterako hausnarketari esker, elkarrekin konponbide berritzaileak lor daitezke.
- Kanpo komunikazioa laguntzen du, eta horren bidez hauek lor daitezke:
  - Zentroko bizitza kanpora transmititzea.
  - Indarrean dauden gizarte estereotipoei aurre egitea.
  - Irudi erakargarriagoa eta positiboagoa erakustea ingurunean.
  - Beste pertsona batzuk erakartzea.
  - Komunitate sare berriak sortzea.

# Ariketak

## 7. ariketa.- Nolako da gure barne komunikazioa?



Barne komunikazioa ikuspegi desberdinetatik definitu ondoren, galdera sorta bat proposatzen dugu, komunikazio hori zentro bakoitzean nolako den hausnartzeko.

### BARNE KOMUNIKAZIOAREN EZAUGARRIAK

Lehenik eta behin, zentroko egungo barne komunikazioari buruz pentsatu eta hitz egin behar da taldean. Horretarako, galdera hauek proposatuko ditugu, orientabide gisa:

- Zer helburu nagusi dituzte barne komunikazioko ekintzek?
- Nola egiten dira informazio ekintzak (zer komunikabideren bidez, zenbat informazio emanez, informazioa eskuragarria den...)?
- Nola sustatzen da entzuteko eta elkarrizketarako guneak erabiltzea?
- Zer komunikazio kanal erabiltzen dira?
- Zenbat pertsonak hartzen du parte, gutxi gora behera, barne komunikazioan?
- Zer alderdi hobetu litezke?

Taldeko hausnarketa egin ostean, bazkide guztiei kontsultatzea gomendatzen da. Horretarako, galdeketa labur bat egitea proposatzen da; bazkideek jardueretatik irtetean edo online eta anonimoki erantzun dezakete (ikusi Jotform erabilera gida).

XXX zentroan, barne komunikazioaren inguruko gogobetetze maila eta balorazio orokorra ezagutu nahi ditugu. Horretarako, erantzun, mesedez, inkesta anonimo honi. Baloratu 1etik 5era bitartean jarraian azaltzen diren esaldiak.

Orientabide gisa, galdera sorta hau proposatuko dugu:

- 1.- Erabat desados.
- 5.- Erabat ados.

Ezagutzen dut zentroko informazio garrantzitsua.	1	2	3	4	5
Ezagutzen ditut zentroari buruz dudan iritzia eta proposamenak adierazteko moduak.	1	2	3	4	5
Oro har, ezagutzen ditut zentroan hartu diren erabakien arrazoiak.	1	2	3	4	5
Zentroan nire proposamenak eta iritzia kontuan hartzen direla uste dut.	1	2	3	4	5
Komunikazio ekintza nahikoa daudela uste dut.	1	2	3	4	5

Baloratu 1etik 10era zentroaren barne komunikazioarekiko duzun gogobetetasuna.									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Zure iritziz, nola hobetu liteke zentroaren barne komunikazioa?

# Nola lor daiteke barne komunikazio egokia?


Jarraian, Helduak Zabaltzen  
ekimenaren esperientzia pilotuetan  
oinarritutako gakoak eta adibideak  
aurkeztuko ditugu:

## ***Oinarrizkoa ere komunikatu behar da***

Batzuetan, ez da ematen alderdi batzuen berri, jende guztiak ezagutzen dituela uste dugulako. Baina komunikazio esplizitu horren gabeziak desinformazioa eta gaizki-ulertuak sortzen ditu sarritan.



Komunikazio horretarako formula egokia izan daiteke zentroari buruzko liburuxka edo eskuliburua plazaratzea. Baliabide horrekin zentroaren definizioa, helburua, parte hartzeko moduak eta bestelako informazio garrantzitsua jakinaraz daiteke.



## ***Komunikazio ekintzak martxan jartzea***

Pentsatu ohi da badagoela nahikoa komunikazio ekintza irisgarri, komunikazio kanal bat baino gehiago dagoenean eta zentroa kudeatzen duten pertsonak horietan maiz azaltzen direnean eta ezagunak direnean. Alabaina, asko dira komunikazioan eragiten duten alderdi pertsonal eta sozialak.



Ildo horretan egokia da, adibidez, bazkideek erabiltzen dituzten komunikazio kanalei buruz galdetzea, elkarrekiko osagarriak diren kanalak erabiltzea —galdera sortak eta balorazioak egiteko talde txikiak, esaterako— eta askotariko profesionalen laguntza izatea pertsonen iritzia jasotzeko.

# Nola lor daiteke barne komunikazio egokia?

## *Kontsulta gehiago egitea*

Entzuteko ekintza asko egin daitezke, bilerarik antolatu gabe eta kudeaketan aktiboki parte hartzen dutenei ahalegin handiagoa eskatu gabe.



Adibidez, WhatsApp bidezko inkestak, jardueri buruzko gogobetetasun galdetegiak ikasturtea amaitu baino lehen, gehien erabiltzen den aretoan horma irudia jarri jarduera berria proposatzeko edo zentroko bizitzaren inguruko balorazioa egin talde txikietan.

## *Iradokizunak edo proposamenak egiteak ez du zertan esan nahi aurrekoa gaitzesten denik*

Aldaketarako proposamenak eta iradokizunak entzutean ohikoa izaten da pentsatzea aurreko jarduna kritikatzeko dela; halakoetan, egindako lana defendatzera jotzen da, proposamenaren ekarpenari erreparatu gabe eta iradokizunen zergatiak ulertu gabe. Baina proposamenak adinekoen artean dauden ikuspuntuen eta errealitateen aniztasunaren isla dira, eta garrantzitsua da iradokizunok entzutea, epaitu gabe, erabilgarriak edo bideragarriak ote diren baloratzeko.

Iradokizun eta ideia guztiak ongietorriak dira beti, ikuspegiak aberasten eta zabaltzen lagunduko baitute.



# Eta, orain?

Harrera prozesuari, jardueri eta barne komunikazioari buruzko ezaugarrien, balorazioen eta eraldatzeko aukeren inguruko gida honetan proposatzen den hausnarketa bukatu ondoren, litekeena da aldatzen has daitezkeen alderdi batzuk zehaztuta izatea. Hau da, une aproposa izan daiteke, hobetzeko modukoa dela uste duguna aldatzeko ekintzak ezartzen hasteko... Ekin lanari!

Aldaketak egiten edo ekintza batzuk martxan jartzen hasteko orduan, garrantzitsua da kontuan hartzea erresistentziak sor daitezkeela pertsona batzuen aldetik. Hori dela eta, Kontzeptuaren gidara jotzea gomendatzen dugu. Helduak Zabaltzen materialen lehenengo ezagutza multzoko gida da, eta, bertan, gako batzuk eskaintzen dira, sarritan sortzen diren erresistentziei aurre egiteko.

Bestalde, ekintzak martxan jartzean ezinbestekoa da zereginak banatzea. Pertsona bakoitzaren eginkizunak zehaztuko dira, alderdi garrantzitsuak egin gabe gera ez daitezen, edo paraleloan jardun, ikuspegi kontrajarriekin.

Puntu horretan, barne komunikazioa lagungarria izan behar da nahi dugun eraldaketa aurrera eramateko, komunikazioari buruzko atalean azaldu dugunez. Ematen diren pausoak alde guztiekin partekatu behar dira, garapena ahalbidetzeko.

Azkenik, funtsezkoa da prozesuen denborak errespetatzea. Aldaketa batzuk erraz egin daitezke, erresistentziarik sortzen ez dutelako, abiapuntu bat bazegoelako eta abar. Baina, beharbada, beste prozesu batzuek denbora gehiago beharko dute. Garrantzitsua da, batetik, hori errespetatzea, eta, bestetik, prozesuaren bilakaera baloratzea, nahi den aurrerabidea errazteko alda daitezkeen alderdiak identifikatze aldera.

Era berean, materialetako atal askotan aipatu denez, oso aberasgarria da antzeko eraldaketak egin dituzten beste udalerrri batzuetako esperientziak inspiraziotzat hartzea. Horretarako, Helduak Zabaltzenen webgunean informazioa partekatzen dute erregistratuta duten gizarte zentroek, oso informazio interesgarria, beste zentro batzuek egiten dutena ezagutzeko.

Informazio gehiago:

<https://bit.ly/40to4kv>





# **Bibliografia eta gomendatutako irakurgaiak**

# Bibliografia




- Aced, C., Arocas, M., & Miquel, S. (2021). Manual de comunicación interna. Madril, Espainia.
- BIZAN. Gasteizko adinekoentzako gizarte zentroen sarea. <https://bit.ly/3DjM2Fp>
- Helduak Zabaltzen. Aurkitu zure zentroa.
- Pozo Lite, M. D. (1997). Cultura empresarial y comunicación interna: su influencia en la gestión estratégica. Madril: Fragua, 1997.
- Xifra, J. (2014). Manual de relaciones públicas e institucionales. Tecnos.
- Villafañe, J. (1999). La gestión profesional de la imagen corporativa. Madril: Pirámide.

# Eraldaketarako gidak



<https://bit.ly/3G8117f>



Helduak Zabaltzen

GIZARTE ZENTROAK ERALDATZEKO TRESNAK

## ASMOA

ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO  
OSKIDATE, GAITHERIA ETA ERROKHA DEMOKRATIKOAREN SALA DEPARTAMENTO DE BIENESTAR, JUVENTUD Y FIEITO DEMOCRATICO

<https://bit.ly/4k2ultD>



Helduak Zabaltzen

GIZARTE ZENTROAK ERALDATZEKO TRESNAK

## PERTSONAK

ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO  
OSKIDATE, GAITHERIA ETA ERROKHA DEMOKRATIKOAREN SALA DEPARTAMENTO DE BIENESTAR, JUVENTUD Y FIEITO DEMOCRATICO

<https://bit.ly/3HBW5YF>



Helduak Zabaltzen

GIZARTE ZENTROAK ERALDATZEKO TRESNAK

## PARTAIDETZA ETA GOBERNANTZA

ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO  
OSKIDATE, GAITHERIA ETA ERROKHA DEMOKRATIKOAREN SALA DEPARTAMENTO DE BIENESTAR, JUVENTUD Y FIEITO DEMOCRATICO

<https://bit.ly/3SZHN6M>



Helduak Zabaltzen

GIZARTE ZENTROAK ERALDATZEKO TRESNAK

## KOMUNITATEA

ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO  
OSKIDATE, GAITHERIA ETA ERROKHA DEMOKRATIKOAREN SALA DEPARTAMENTO DE BIENESTAR, JUVENTUD Y FIEITO DEMOCRATICO

# Lan-tresna gehigarriak



<https://bit.ly/4lcWiA3>

**Helduak Zabaltzen**

**JOTFORM ERABILTZeko GIDA**  
**FORMULARIOAK ONLINE EGITEKO PLATAFORMA**

**PAUSOZ PAUSO**  
 Jotform erabiliz, formularioak, inkestak, bozketak... sor ditzakezu....

**Helduak Zabaltzen**

**NOLA DISEINATU JARDUERA BAT**

Zer motatako jarduerara antolatutako dugu?		
Nori zuzenduta dago jarduerara?		
Noiz garatuko da jarduerara?	Eguna	
	Ordua	
	Urtaroa	
	Iraupena	
Non egingo dugu jarduerara?	Aire zabalean edo espazio irekian?	
	Zein herri edo udalerrian?	
	Zein lokal, espazio edo egoitza erabiliko dugu?	

1

<https://bit.ly/3T2VXE9>

<https://bit.ly/4kRvyp6>

**Helduak Zabaltzen**

**BAZKIDE BERRIEN INFORMAZIOA BILTZEKO FITXA**

Izen-abizenak:

Telefono-zenbakia:  E-maila:

Kontu-zenbakia:

Argazkia

Kontuan hartzeko: jarraian, elkartzeketa errazteko zerbait galdara proposatzen dira. Hobe da lizaletaren amaieran (eta ez bitartean) oharrak hartzea, bazkide berria eroso sentituko den giro atsegina lortzeko.

1.- Zerk bultzatzen zaitu Zentroan parte hartu nahi izatera?

2.- Zer zaletasun dituzu? Zer gauza interesatzen zaizkizu?

3.- Zertan lan egin duzu? (lanbidea, trebetasunak, ezagutzak... jasotzeko galdara)

1

**Helduak Zabaltzen**

**EKINTZA EBALUATZEKO FITXA**

Ekintzaren izena:

Data:  Lekua:

Zer egin dugu - deskribapena:

Zer fortu nahi dugu - helburuak:

Ekintzaren ardura

Gizarte Zentroa	Udala
-----------------	-------

Beste eragile batzuekin lankidetzan egiten da

Eragileak, elkarteak edo bestelako erakundeak
---

Nortzuk hartu dute parte:

Adineko pertsonak	Biztanleria orokorra	Beste biztanle batzuk
-------------------	----------------------	-----------------------

Parte hartu duten pertsonen profila

Gizonen kopurua:	Emakumeen kopurua:	Parte-hartzaileen kopurua:
Adin tartea:	Xxx:	Xxx:

Ekintza punutala da?  Bai  Ez  Aurrekontua:

Ekintza jarraitua da denboran zehar?  Bai  Ez

<https://bit.ly/43R1T9r>





**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

ONGIZATE, GAZTERIA ETA  
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,  
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO